

“ORIXE BETI ORIXE”

JOXEMARI ARANALDE

Errenteriar prestu bati goraintzi

Behin ere ez-eta, nolatan datorkigu Aranalde gure aldizkari honetara? pentsa dezake errenteriarren batek, lerro hauek baino lehen barreneko firma irakurri baldin badu. Laister aterako zaitut, irakurle, bidezko harridura horretatik.

Aurten, "Literatur Ihardunaldiak: Nikolas Ormaetxea 'Orixe'" delako ekintza bat izan da Donostiako E.U.T.G. ikastetxean. Nik, hitzaldi pare bat eta beste zer edo zer ere egin behar izandu dut bertan.

Hori dela-eta, nere lan orduetan ez-ohizko eginkizun horietara joateko baimena errenteriar peto-peto bati eskatu behar izaten bait nion, balezkoaren ordainetan edo, zuen —eta beure— aldizkari honetarako artikulutxo bat eskatu zidan delako nere nagusi Joxean Arbelaitz jaunak. Eta nik baietza eman. Horregatik nago gaur hemen zuekin.

Nik Errenteriarik ezagutu izan ez banu Orixe baino lehen, eta "bixita"rik egin izan ez banio zuen Xenpelar haundiaren gonbiterik gabe, orain kontatuko dizudan moduan ezagutu nezakeen Orixeren bidez.

"Aingerua bezelako gizon bat" bazela hor entzungo nion lehen-lehenik. Frankoren matxinoek hil omen zuten delako giza-aingeru edo aingeru-gizon hori. Don Martin zuen izena. Huzoherritarra zenuten. Oihartzuarra. Lekuona famatuen familiakoa zen, Don Manuelen anaia, eta Joan Mari eta Andoni eta Iulen ezagunen osaba. Maite zuen Orixek. Eta zuek, ai denean. Ez dut errenteriarrik ezgutu Don Martinez laudorioak egiten ez dituenik. Orixek "aingerua bezelako gizona" esaten zuen. Polita laudoria!

Hurrena, "Euskaltzaleak" elkarte zela-eta entzungo nion zuen herriaren izena. Ez zuen oroitzen atsegirik. Idazle eta olerkariaren artean maizegi izan ohi diren gorabeherek mikaztu zioten kultur-elkarte baliotsu horrekiko harremana. Ez omen zuten zintzo jokatu berarekin horko bazkideek, edo buruzagiek behintzat. Sariketarako antolatu zituen, besteak beste, "Euskaltzaleak" delako horrek, eta ez da sariketarik denentzat on denik. Hori berez. Horretaz aparte, susmo txarrak sortzeko biderik eman balezate, berriz, pentsa zernolako irudipen eta esames pesta sor dezatekeen. Horrelako zerbait gertatu bide zen sariketa haieran. Orixek, behintzat, min zuen.

Eta nola ez entzun zuen Xenpelar haundia aitatzan? Delako "humanismo" hori, ez omen zegokeen gaizki esana euskaraz zuen bertsolariaren "gizalege" famatu harekin. Nik ez dakit erdarazko hori eta Xenpelarra pareko konzeptuak diren; baina besteak beren humanismoarekin haina konzeptuak diren; baina besteak beren humanismoarekin haina baginatekeela gu zuen herritarraren gizalegearekin bai, badakit. Orixerentzat, konzeptuz ere bada gizalege gaztelaniazko "humanismo" hori haina.

Honelatsu izango nuen nik Errenteriarren berri Orixeren bidez, baldin eta, ia-ia jaio ordurako, zuen herria ikusteko eta ezagutzeko egokierarik izan ez banu.

Baina zer ari naiz ni? Zeinek esan dit neri zuei zeuron herriaz hitzegiteko? Neri Orixeren berri emateko deitu didate. A errenteriarra! Orixeren berri jakin nahi duzu? Gipuzkoako Oresa herrian jaio 1888ko abenduaren 6ean, eta Naparroako Uhitzi herrian hazi, eta Jesusen Koanpañian ikasketak egin, eta, handik aterata, auskal-sailetan lanean ihardun jo eta ke gerrako eta ondorengo astinaldi guztien artean, eta azkenean esku maitakor baten babesean eta Jaingoaren behakoaren pean Añorgan 196leko abuztuaren 9an hil zen hiruxki haundia ezagutu nahi duzu? Ederki! Bejondaizula! Ez zaizu damutuko Orixekin ezagutza egina. Ederra da alde guztietatik Orixe, itzal-argiek elkarrekin jokoan dituzten edertasun guztiak berekin dituen. Aurrera, beraz.

Heldu den urteak eman diezazuke aukera bikaina horretarako. Ehun urte egingo ditu Orixe sortu zela. Hor duzu beraren obra haundi eta paregabea. Sar zaite oihan zabal horretan barna, eta nik apustu egiten dizut, behin sartuz gero —eta zenbat eta sartuago eta gutxiago—, ez duzula sekulan baso horretatik atera nahiko.

Eta lagun bat nahi duzula zure ibilaldirako, gal ez zaitezten eta hobeki aprobetxa dezazun? A errenteriarra! Zuertean zara. Zuk etxean daukazu maisua, eta luzaturik dauka eskua, zeure txango-lagun har dezazun. Errenteriar hori da Orixeri hitzaldi-erantzuna egin ziona Leitzaun 1957ko abenduaren 22an, oresa-rra Euskaltzaindian sartu zenean. Eta han esan zuen, Euskaltzaindiak Orixe baino Orixek Euskaltzaindia gehiago ohortzen zuela egun hartan. Jaun hori, Koldo Mitxelena duzu, irakurle, zuen herriko seme argia. Hori duzu Orixe zenaren neurtzailerik eta kritikorik egokiena.

Hor daukazuzu, irakurri nahiko bazenitu, "Mitxelenaren idazlan hautatuak" liburuan hiru artikuluko oso, eta ez dakit nik zenbat apamen, Orixe nahiz beraren lanen bat dela eta idatzia. Zuen herritar argi honek ez dauka saltzeko gure orexarra.

Eta nik ere, zuen aldizkari honetan Orixe aitatzuz idazteko eskatu didatenean, Mitxelenaren hitzez baliaturik konplitu nahi dut, nik esan diezazuekeedan baino ohore gehiago egin bait diezaioke Orixeri errenteriar jakintsu honen esanak.

Hona, lehenlehenik, Orixe gizonaz dioena: "Gizon bezala, ezin hobea da Orixek utzi digun eredia. Egiatzko gizon, bere buruarekin borroka eta Jaingoaren bila, egiatzko euskaldun eta euskaltzale, Euskal Herriaren seme jator, ez hitzez eta oihuz, eguneroko lanaren bidez baizik". Zernolako irudia egiten duen Orixerena!

Eta haren obraz, besteak beste, honako hau irakur dezakezu: "... esan daiteke bere obra dugula behar bada asmoz eta neurritz, erabat harturik eta inorena gutxietsi gabe, euskal idazle batek, noizkahikoa den, sortu duen larniena".

Hona zuen gizonaren iritzi biribila. Besterik ere badio, jakina, eta haiek ere ikasi nahiko lituzkeenak Orixeren omenean, badaki non aurki ditzakeen.